Kotizatu gabekoen pentsioa -KGP-

Fitxa interneten bistaratu

INFORMAZIO OROKORRA

Helburua

Gizarte Segurantzako pentsio hau bizitzako oinarrizko beharrei aurre egiteko nahiko baliabide ekonomikorik ez duten pertsona adindu edo desgaitasuna dutenentzako da.
Bi mota daude:
Kotizatu gabeko ERRETIRO-PENTSIOA (KGP).
Kotizatu gabeko EZINTASUN-PENTSIOA (KGP).

Nork tramitatzen du

- ZAINKETETAKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA
- Plangintzako, Inbertsioetako, Ikuskapeneko eta Prestazio Ekonomikoetako Zuzendaritza Nagu.
- Plangintzako, Ituneko eta Prestazio Ekonomikoetako Zerbitzua

Nori zuzenduta

Baliabide gutxiko pertsonak, gutxienez %65eko desgaitasuna dutenak edo 65 urtetik gorakoak direnak.

Baldintzak

Orokorrak:

- Gipuzkoako Lurralde Historikoan erroldatuta egotea.
- Nahiko baliabide ekonomikorik ez izatea (ikusi informazio osagarria).

Ezintasun- pentsioa:

- Eskaeraren egunean, 18 urte baino gehiago eta 65 baino gutxiago izatea.
- Legez Espainiako lurraldean bizitzea eta 5 urtez hor bizi izan dela ziurtatzea. Horietatik bik segidakoak izan behar dute eta KGParen eskaeraren aurre-aurrekoak.
- %65eko edo gehiagoko desgaitasuna izatea.
- Hirugarren Baten Laguntzako (HBL) osagarria jasotzeko, %75eko gutxieneko desgaitasuna behar da eta Mendekotasuna Baloratzeko Baremoan (MBB) behinik behin gradu bat izatea.

Erretiro-pentsioa:

- Gutxienez 65 urte izatea.
- Legez Espainiako lurraldean bizitzea eta 10 urtez hor bizi izan dela ziurtatzea. Horietatik bik segidakoak izan behar dute eta KGParen eskaeraren aurre-aurrekoak.

Zenbatekoa

14 ordainketa (12 hileroko eta 2 aparteko ordainsari, ekainean eta azaroan)

- **KGP-KO GEHIENEZKO ZENBATEKOAK:** KGP
  HILEAN: 628,80 €
  URTEAN: 8.803,20 €

- **KGP-KO GEHIENEZKO ZENBATEKOAK:** HBL (Hirugarren Baten Laguntzako osagarria)
  HILEAN: 314,40 €
  URTEAN: 4.401,60 €

- **KGP-KO GEHIENEZKO ZENBATEKOAK:** KGP+HBL
  HILEAN: 943,20 €
  URTEAN: 13.204,80 €

- **KGP-KO GEHIENEZKO ZENBATEKOAK:** %85 (Unitatean KGP-ko 2 onuradun badaude)
  HILEAN: 534,48 €
  URTEAN: 7.482,72 €

- **KGP-KO GEHIENEZKO ZENBATEKOAK:** %80 (Unitatean KGP-ko 3 onuradun badaude)
  HILEAN: 503,04 €
  URTEAN: 7.042,56 €

Zenbatekoaren kalkulua, errenta edo diru-sarreren arabera egingo da (ikusi informazio osagarria)

Ordaintzeko modua

Eskaeran adierazten den onuradunaren kontuan, hila burututa.

HASIERA ETA ESKAERA

Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

OSO GARRANTZITSUA! Azpian dagoen inprimakia bakarrik **informatze aldera** dago. Eskaera **Udaleko Gizarte Zerbitzuek** egin behar dute, eta horretarako erreferentziazko gizarte langilearekin hitz ordua hartu beharko da.
Eskaera orria

Aurkeztu beharreko agiriak

1.- Eskatzailearen NA edo AIZa.
2.- Errolda ziurtagiriak: Espainiar estatuan 5/10 urtetan (desgaitasunekoak/erretirokoak) erroldatuta egon dela egiaztatu behar da. Gipuzkoan bizi izan den epealdietako errolda ziurtagiria ez da aurkeztu beharrik.
3.- Diru-sarrerak: urtean zehar eskatzaileak izango dituen diru-sarreren aurreikuspena: alokairuak, kapitalen interesak, atzerritik jasotako diru sarrerak…
4.- Pentsioa ordaindu ahal izateko **kontuaren bankuko frogagiria edo libretaren fotokopia.** Kontuak eskatzailearen izenean egon behar du.
5.- Atzerrian jaio diren pertsonak: Estatuan izandako legezko bizi aldien agiria, Atzerritarren Bulegoak egindakoa, 5/10urtez (desgaitasunekoak / erretirokoak) egoitza baimena izan dela egiaztatu behar da.
6.- Bananduak-dibortziatuak: banatze epaiaren fotokopia ,eta badenean ere, hitzarmen arauemailea.
7.- Judizialki ezgaituta daudenen kasuan: tutorearen izendapena egiaztatzen duen dokumentua.
8.- Eskatzailea senitartekoekin bizi denean (ezkontidea, seme-alabak, bilobak, gurasoak, aiton-amonak eta anai-arrebak), orduan aurkeztu beharko dira ere:
- **8.1.-** Senitarteko horien NAren edo AIZren kopia.
- **8.2.-** Senitarteko horien urteko diru-sarreren aurreikuspena.

Eskaera moduak

» Presentziala

Zuzeneko arretarako bulegoak

Eskaera aurkeztuko da eskatzailea bizi den udalerriko Gizarte Zerbitzuetan.

EBAZPENA

Ebazteko gehienezko epea

3 hilabete.

Administrazioaren isiltasuna

Ezestekoa

Honen bidez jakinarazten da

» Ohiko postaz

ARAUDIA

357/1991 Errege Dekretua, Gizarte Segurantzako kotizatu gabeko pentsioak arautzen dituen 26/1990 Legea garatzekoa (eguneratua).
8/2015 Errege Dekretu Legegilea, 2015eko urriaren 30ekoa, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bateratua onartzekoa (art. 363-373).
PRE/3113/2009 Agindua, azaroak 13koa, 357/1991 Foru Dekretuaren garapen eta aplikazioari buruzko arauak ematen dituena.

INFORMAZIO OSAGARRIA

Oharrak

-Kotizatu gabeko pentsioa laguntza hauekin bateraezina da:
1.- Gizarte Ongizateko Funtsaren pentsioa.
2.- Minusbaliatuak gizarteratzeko legearen gutxieneko diru sarrerak bermatzeko subsidioa eta beste norbaiten beharragatik ematen den diru laguntza.
3.- KGPko pentsiodunak norberaren kargura dituen seme-alabengatik ematen den laguntzaren kausatzailea bada.

-Onuradunek besteak beste ondorengo BETEBEHARRAK izango dituzte:
- Pentsioa jasotzeko eskubidea edo honen zenbatekoa alda dezakeen edozein gorabeheraren berri eman behar da, 30 egun baino lehen.
- Urtero diru sarreren aitorpena egin behar da.
- Oker jasotako zenbatekoak itzuli behar dira.

Informazio gehigarria

-Kontuan hartzen diren errentak edo diru-sarrerak: hartzaileak edo elkarbizitzako ekonomi unitateak urtero jasotzen dituen ondasunak edo eskubideak, lanetik edo kapitaletik eratorriak, baita haien edozein ordezkoak ere; zenbateko gordina hartzen da kontuan.
-Pentsiorako eskubidea izateko, hartzaile beraren errenta edo diru sarrerak ezin dute gainditu pentsioaren legezko urteko kopurua (2026. urterako 8.803,20 €). Aurrekoaren arabera pentsiorako eskubidea badu, pentsioaren zenbatekoari berezko diru sarreren kopurua kenduko zaio, urteko neurketa egin ondoren, gehienezko pentsioaren %35eko zenbatekoa salbu.
-Hartzailea elkarbizitza unitate batean sartuta badago ezkontidearekin edota 2 gradu arterainoko odolkidetasun edo adopzioko senitarteko batekin, elkarbizitza unitateko kide guztien errenta edo diru-sarrera guztiek orotara ezin dute gainditu baliabide metaketaren muga, ondoko taularen arabera:
Diru sarreren gehieneko muga onuradun izateko, senitarteko gehiagorekin bizi izanik:

- **Elkarbizitza Unitateko kide kopurua:** 2
  Eskatzailea guraso edo seme-alabaren batekin bizi bada: 37.413,60 €
  Eskatzailea beste senitarteko batzuekin bizi bada: 14.965,44 €

- **Elkarbizitza Unitateko kide kopurua:** 3
  Eskatzailea guraso edo seme-alabaren batekin bizi bada: 52.819,20 €
  Eskatzailea beste senitarteko batzuekin bizi bada: 21.127,68 €

- **Elkarbizitza Unitateko kide kopurua:** 4
  Eskatzailea guraso edo seme-alabaren batekin bizi bada: 68.224,80 €
  Eskatzailea beste senitarteko batzuekin bizi bada: 27.289,92 €

- **Elkarbizitza Unitateko kide kopurua:** 5
  Eskatzailea guraso edo seme-alabaren batekin bizi bada: 83.630,40 €
  Eskatzailea beste senitarteko batzuekin bizi bada: 33.452,16 €

- **Elkarbizitza Unitateko kide kopurua:** 6
  Eskatzailea guraso edo seme-alabaren batekin bizi bada: 99.036,00 €
  Eskatzailea beste senitarteko batzuekin bizi bada: 39.614,40 €

Muga horiek ez gainditzeko, pentsioaren zenbatekoari guztien diru sarreren kopurua kenduko zaio, urteko neurketa egin ondoren.